

EUSKARAZKO ETNOTESTU BATZUK

Koldo Artolak bildu eta ARANZADiko Etnografia Sailak, 2014an argitara emaniko “Ziorditik Uztarrozeraino, Nafarroan, euskararen hegoaldeko mugetan barrena, 1983an” izenburuko lanetik hartuta.

Testuak Ergoienako Dorraon, Arakilgo Ihabarren eta Txulapaingo Beorburun bildu ziren.

---oOo---

Dorraoko berriemailea: Juanita Lizarraga Yaben, 1923an jaioa

LIHOAREN INGURUKO LANAK (2000)

– *Kontatzen ahal duzu pixkat?*

Kontatu? pues e... esan biar duzut: ori ereitten tzan, e... últimos de setiembre, bei, últimos de setiembre, eta, e... akatziak o urriyak –urriya da, guk urriya satou setienbrei– jarri bizuen ya, jeiyu, bi orritzen; geo, jei-, jeiyotzen tzan? zaborra atratzen tzakiyon dena ondo, zaborra ta, uzten tzan garrbi-garbi-garbia! ta atutzen tzuen, loria, urdin bet, oso lore politta atutzen floria, flore urdin polli bet atutzen tzuen.

Eta gio eitten zakiyon, flore ura botatzen zakiyon berrie? aziya, eta ya pixket eitten tzakiyon garäiyan aziy ura¹? eitten giñuen atra, zeñetati; zeñetatë atutzen giñuen? lotzen giñuen ee... paxotan? eta ematen giñuen ubeldia. Ubeldian putzu aundi bat eoten² giñuen? paatzen giñozkoon e... arriyek geñen? t’egoten tzan, bedratzi eun ta bedratzi e... gou, utsin, sartuta.

Geo atutzen giñuen utseti? ta paatzen giñuen iruzkiyen, eoten tzan, sekatzan; sekatzan tzan ura? eta sekatzan tzan garaiyen? egun (y)onnaeki? bazian, eguresko, esaten zooruen garbak, iru... iru ojekuek? ta sartzen tza-, ¡no, miento! lendaixkuan eitten tzan, maz batekin jo-ta, kaskal ura kendu, kaskal ura dena jentzen zakiyon? mazaekiñ, e? dena joka. Ta gëo, jentzen tzakiyon gañien kaskal ura... e, e, orrekiñ? e... mazaeki(n)? pasatzen tzan, iru oro eoten tzian? ba, orixe: trakata-tra! trakatra-tra! trakata-tra! geiltzen tzan, lia bekeleixen, launnnn-laun-laun-laun-laun-launa, ango... eitten tzuen e... ariy ura.

Geo pasatzen tzan, katxarro bat eoten tzan olixo anka sartuta, como unas e... púas, burniskuak? an eitten tzan, orrazi, orrazi, te geiltzen tzan fiiiin-fin-fin-fin-fiña, fiña, ossso fiña! geiltzen tzan biar seta bekelaxe? xeda bekelaxe. Eta geo, makil bet zan? makill aundi bet? da makill aundi yärtan? ee... e lotzen tzakiyon e... katxarro ura, ille moduko oi? eta e, sartzen giñuen besazpiyen? ta orixe eitten tzakiyon a... alako katxarro (b)ati bueltak emannda, bueltak emanda, bueltak emanda, bueltak ema(n)? eitten zan e... bera ariya, ariya.

Geo, ariy ure eitten tzan garäiyan? eitten giñuzkien te... pillotak; an, katxarro at egurrexkua? e... madejak ee, eitten tzianak? eta, madejak jartzen tzian-da, eitten tzan, e pillot eittekin madejak; ta madejak eitten tzian gareiyan, bi e... alde pati, lotzen ztia(n)? eta eitten tzia(n), arrixko... –orduen arrixkuak giñazkan, guk, beste atzuk zazkuen de zink– lixuba, lixu berriya, eitten tzana, arropa, dena... egosi ta, e... dena, ta an eitten tzan egosi. An eitten tzan egosi? botatze(n) zakiyon utsa, garbiya? eta... txulo txiki bat ordun, zer itsu berriy arrek? ta, an, kredo errezatzen ziñuen? eta, ya, kredo errezatuta, akaatzen tzan garäien kred ura? ya egosik zegon e... ura, lixib ura egosik zegon.

Pues, geo? eitten giñuen fan e... labaderua? aundi-aundi-aundiya jo ta garbittu? eta eitten tzan sekatu, iruzkiyan, e? iruzkiyän. Eta geo, eitten tzian, pillotak? eta ematen giñuen a hacer. Etxarrin eoten tzan e... tejedorëa, bai, tejedore...

– *Ehutzalea?*

Be, auntzalia, bei, auntzalia; an eitten tzuen e... auntzalia zan, eta an eitten tzuke ee... tela? o eitten tzittüen e... olako... beste gañien metruat o... zeotzer e... de ochenta centímetros o... metrua? da eitten tzuen tela, ta geo eitten zittuen mediek, e? azken josi ta ya está! eta segun nola eitten ziñuen zuk, ola lixtu bat, emannda... ariyäi, zenbatennnes geixaö ibiltzen ziñuen? eitten tzan, ariyä, fiñaö! ta aria

¹ *aziy uga* aditzen uste dugu.

² ‘edukitzen’ da hori, Lizarragako testuari egin iruzkinetako batean aditzera eman bezala.

fiñaö egiten zanekin? pues media ayek izaten tzian, e mia(o)kuek, eitten balen bazien mantak arek? nola zien e... ura, ori? pues izain tzian meindiriek e... latzak! latzak, gogorrak!... gutxi badot oainikan ee... meindiriek e, mises, jo! menudas sábanas!...

---oOo---

Ihabarko berriemailea: Mikela Huarte Arraras, 1898an jaioa

HIL EZKILAK JOTZEKO ERAK (1988)

– *(Lehengo batean) esan zenuen, kanpaiak (ezkilak) nola jotzen zituzten...*

Ah, ezkille?

– *Bai, elizakoak, hiltzen zelarik gizon zahar bat edo hiltzen balin bazen haur bat eta...*

Ah, bai, gizon zar bat iltzen tzënian? ta, ola... ya mötulle ere bai: tin-tan, ta, aurrek txiki ziren? ttin-ttan, ttin-ttan, ttin-ttan... alegreaö.

– *Eta beste modurik bazen?*

Ez, ez, ez, ez; bi, bi... bi modu, bai, bi modu.

– *Eta balin bazen uholdea edo, inundación edo sua edo...?*

Ah! sue zenian? ezkille... göotik: ban-dan-dan-dan-dan!... an, zen guzie... ola: dan-dan-dan-dan-dan-dan-gun-dan-dan, geldittu be ya, ezkiko, (zuzenduz:) erriko ezkille? orein?... eztoke... soñuik beñon, ezkille zen izugarrisko... ona, ta orei're... nik uste nuen ezkillek etzeela... etzeela gastatzen ta ezkillek ee, soñue juan, juan itten dakiote!... oin eztoke soñuik, e? juan den urtian ez, aburra(g)o, oin dela bi urte juan... juan giñen? an aldamenekuaki(n)? ta beala erriko kontuek atra giñuzen ta esan nion nik: “Ezkillek ee kanbietu dee orein –esan nion nik– eztoke soñuik” eta, “Egie da, eztoke soñuik”. Ta gëo, tor nitzenian, emen ee, aittu nuen, ezkillek ee galtzen dutela soñuä; ta... konpondu in biar dee, ta eztoke konponzen ta eztoke kasi soñuik; len? ezkil betzek, Jesus!... aitzen tzeen, nik eztoke noaiño, ta orin oso motela, dao... Klaro, apeza're... prexakan ibiltzen da...

– *Esaten dute ezkila onak Arruazukoak direla...*

Arbazukuak dee?... bai, iez in tzuten e... apuste!

– *Bai, konkurso edo apostu edo...*

Konkurso, bai, bai... ta ni arrittuik, gue errikuak ee, nola etzuen ee... Jesus! ezkil betzeök!... Gëo, mutillek o, bai... prozesioak itten zittuten Ama Birjiñen egunian ta... eztoke erri guzie barna, Ama Birjiñekin? te, ezkillek... mira: bandiatzen bezeleixen, bi ezkil?, bandiatzen bezeleixen jotzen zittuten, ta zen ederki! ta oräin ez, oräin, eztoke soñuik, oso soñu... tristea dokete; ta, eztoke iñok kasuik itten... eztoke iñok kasuik itten. Apeza esan duune... Iruñen daö, ta... tortzen da, astëan bi egunes, iendian maten du meza prexaka, bi dö iru erri badauzki, meza emateko, ta eztoke... eztoke denborik.

---oOo---

Beorburuko berriemailea: Esteban Garbisu Aranguren, 1911n jaioa

ABEREA FERRATZEN (1985)

Gero... denbora artan? itxe guzietan... idiak eta izeiten baizien, ferraturik?³ itten zittuten...

– *Hara, horretara ailegatu nahi nuen.*

Ta, gero... itxe guzietan... mandoa edo beorra edo izeiten tzen? ta oyek ere ferratza-ten tzittute emen. Nik Iruñera aurrenean da ore? etzen autobus orduen, igual... yoan biar tzen? ta... bidian igual... galtzatzeuten ferra bat? eta, ara! bueltan... ferratu? te... biorrak eta ola? artu, eamaten giñuenak? eta, batek... lenik, beso at ferratu? ta... an, an... ferra... paatu? obrenian, ya, gastatuik ezpazeon? galdu ziñuena? eaman, ezperen, pues... berrie patu? te... iltze batzëk, zeraki sartu? beso at e, ferratzen...

– *Iltze batekin?*

Ez! zortzi iltze bakotxak, ferra bat... bakotxak bear zittuen; zortzi iltze guttienas. Gero? ori... besoa... ferratzen ziñuelik? bertzia, bertze. Gero? anka at, ero bertzean? lauek, ferratu te... ba an? obrenian Iruñera yoan bear? ta... an, pixkuat, arreglatu te... ezin? dena... loyez betetzen tziñen? ta dena... bakizu, Iruñen, arara yoan biar tziñuelik e... suertetzen bazen... ferra galtzera? baakizu, beti...

³ ferraturij aditzen delakoan gaude.

dena... zikiñe, yoan biar ziñuen Iruñera. Onata eldu ziñeleik, ya itxera eldu ziñelik⁴, ya etzen anbeste inporta biño, ara yoan bear tzelik? pues igual.

Ta idiek, beis? potrua, izeten tzen, ferral...-tzeko, pues idiek? pues an... tranka batzuki? bueltaka ta bueltaka ta bueltaka... eaman? ta, e... besoak eta, an, denak lotu? ta, ayëk? an, ez tziñuen... ukitiar⁵ ere, ya, bere artean, ferratzaleak, berak itten zittuen biño, biorra baziñuen edo... zaldi edo... do mandoa o oyek? zeoye, zeorrek artu? te... irikiar tziñuen... ferrazaliak ferratzeko.

– *Orduan, aiseago ferratzen zen behia mandoa baino...*

Ba(i)! klaro!

– *Mandoa sujetatu behar zen...*

Sujetuik? e... anka betik artute!... ikasi nuen.

– *Min egiten zitzaien?*

Beh!

– *Hori gogorra dute, ezta?*

Bai, ori bai, ori, azkazala, klaro!

– *Ez dute min handirik nabaritzen...*

Ez, mini(k) etzuten bate, arek; por ejemplo pues, ferratu te... denbora ona eiten badu? pues-pues, obreanean, bi zentimetro geigo, kendiar tzioten... azkazala, berri-, berriz ferra paratzeko.

– *Zerekin?*

Ah, pues llana bat izeten tzen, ola...

– *'Llana'? erramienta bat?*

Llana... erramienta bat, bai, llana esaten zioten; bai, orai ere badire. Emen, lengo aldien emen, beiei azazkalak pixkuat mozteko, ori, e... Auzeko... ori? ekar tzun.

– *Haiendako ferrak dira guretako zapatak bezala, ezta?*

Klaro! klaro, klaro...

⁴ *ziñeni* aditzen delakoan gaude.

⁵ 'ukitu behar' da hori, hurrengo lerroko *irikiar* bat 'ireki behar' den bezala.